



elkar-lan
S. C. I. I. P.

KOOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

**TXOSTENA - MEMORIA
2003**





AURKIBIDEA

ÍNDICE

	Orrialdea		Página
I. ORGANO SOZIALAK	3	I. ÓRGANOS SOCIALES.....	3
II. LEHENDAKARIAREN AGURRA	7	II. SALUDO DEL PRESIDENTE	7
III. INFORMAZIOA ETA ZBALKUNDEA....	11	III. INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN	11
IV. PRESTAKUNTZA	17	IV. FORMACIÓN.....	17
V. KOOPERATIBEN AHOLKULARITZA ETA ERAKETA.....	19	V. ASESORAMIENTO Y CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS	19
VI. TUTORIZAZIOA / JARRAIPENA	23	VI. TUTORIZACIÓN / SEGUIMIENTO.....	23
VII. LANKIDETZA-HITZARMENAK.....	25	VII. CONVENIOS DE COLABORACIÓN	25
VIII. 2003KO EKITALDIAN ELKAR-LAN, S. COOP. ERAKUNDEAREKIKO LOTURA ESTUA IZAN DUTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA	29	VIII. RELACIÓN DE COOPERATIVAS VINCULADAS A ELKAR-LAN, S. COOP.....	29
IX. ELKAR-LAN, S. COOP. DIRUZ LAGUNDU DUTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA	55	IX. RELACIÓN DE COOPERATIVAS QUE HAN COLABORADO ECONÓMICAMENTE CON ELKAR-LAN, S. COOP.	55





I. ORGANO SOZIALAK

I. ÓRGANOS SOCIALES





I.- ORGANOS SOZIALAK (03/XII/31)
I.- ÓRGANOS SOCIALES AL 31/XII/03

BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL



EUSKADIKO KOOPERATIBEN
GOREN-KONTSEILUA (EKGK-CSCE)
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE
EUSKADI (CSCE)



EUSKADIKO KOOPERATIBEN
KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)
CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE
EUSKADI (CCE)



EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN
FEDERAZIOA (ELEKF-FCTAE)
FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE TRABAJO
ASOCIADO DE EUSKADI (FCTAE)

KONTSEILU ERREKTOREA CONSEJO RECTOR

LEHENDAKARIA PRESIDENTE	Agustín Mendiola Gorospe	ELEKF FCTAE
LEHEND.ORDEA VICEPRESIDENTA	Marta Aréizaga Ezkurdia	EKK CCE
IDAZKARIA SECRETARIO	Juan Luis Arrieta Pagaldai	EKGK CSCE
KIDEAK VOCALES	José Luis Andrés Arguieta Natividad Puertas Alonso Alfredo Montoya Esíbalaz Javier Salaberria Amesti José Antonio Ugarte Elorza	ELEKF FCTAE ELEKF FCTAE EKGK CSCE EKK CCE ELEKF FCTAE
ZUZENDARIA DIRECTOR	Fco. Javier Sanz Santaolalla	





II. LEHENDAKARIAREN
AGURRA

II. SALUDO DEL
PRESIDENTE



Euskal Kooperatiba Mugimendua osatzen duten erakundeek beti izan dute helburu hau: kooperatiba-esperientzia berriak sustatzea Euskadin, honela enpresa-errealitate kooperatiboa zabaldu eta gero eta indartsuagoa izan dadin. Barne-ikuspegitik, enpresa-mota honen ezaugarria protagonista nagusiak pertsonak izatea da, bazkide langileak alegia, arau eta portaera demokratiko eta parte-hartzaileen bidez beren artean antolatuak.

Eta honela, Euskal Kooperatiba Mugimendua osatzen duten erakundeek, Kooperatiben defentsa eta garapenerako erakunde horietako bakoitzari dagozkion jokabideak eta zerbi-tzuak garatzeaz gain, azken urteotan zenbait programa jarri dituzte martxan, kooperatiba gisako enpresa-ekimen berriak sortu eta abian jartzera zuzenduta.

Promozio-lan honi gero eta garrantzi handiago ematen zitzaiolarik, baita era askotako baliabide gero eta gehiago ere, halako batean erakunde guztientzako ente espezializatu bat sortzeko premia eta egokitasuna planteatu zen, bete-betean Kooperatiba berriak sortzera emandako ente bat, eta azkenean hori "ELKAR-LAN, S. COOP. Kooperatibak Sustatzeko Elkartea"ren eraketan gauzatu da; Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eta Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren artean lortutako konpromisoaren emaitza da, alegia, Kooperatiba-enpresak sustatzeko lan eder hori etorkizunean elkarrekin egiteko konpromisoaren emaitza.

Zeregin horretan ELKAR-LAN, S. COOP.ek jardura zabala du: kooperatibismoaren zabalkundea, negozio-ideiak antzeman eta balioestea, enpresa-sustapenean diharduten erakunde publikoekiko lankidetzeta, laguntza tekniko eta juridikoa, eta Kooperatiba bat sortu ondoren laguntza tutorizatu epe jakin batean.

Bere lanaren emaitza onak laster agertu dira eta 2003ko Oroitidazki honetan agertzen dira zehaztuta; txosten hauxe da, hain zuzen, ELKAR-LAN, S. COOP.en ibilaldian bere lehen urteak eman duena:

Uno de los objetivos que siempre han perseguido las organizaciones que conforman el Movimiento Cooperativista Vasco ha sido el de promover la creación de nuevas experiencias cooperativas en Euskadi para, de esta forma, ensanchar y hacer cada vez más presente y potente esta realidad empresarial cooperativa, que se caracteriza en su perspectiva social interna por unas formas de hacer empresa en las que los grandes protagonistas son las personas, los socios trabajadores organizados entre sí por reglas y comportamiento democráticos y participativos.

Y es así que las organizaciones que integran el Movimiento Cooperativista Vasco, además de atender y desarrollar las actuaciones y servicios propios de la competencia de cada una de estas organizaciones para la defensa y desarrollo de las Cooperativas, en los últimos años han puesto en funcionamiento programas encaminados a promover la creación y puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales de cuño cooperativo.

Esta actividad promotora, que tenía una línea creciente tanto en la asunción de su importancia como en la consecuente asignación de medios de distinta naturaleza, hizo que se planteara la necesidad y oportunidad de la creación, para el conjunto de las organizaciones, de un ente especializado plenamente centrado en la tarea de promover nuevas Cooperativas, lo que se ha plasmado definitivamente con la constitución de la "Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP.", que es fruto del compromiso alcanzado entre la Confederación de Cooperativas de Euskadi, el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi y la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi de recorrer juntos en el futuro la apasionante tarea de la promoción empresarial cooperativa.

Para ejercitar esta tarea, ELKAR-LAN, S. COOP. realiza un abanico completo de actuaciones que van desde la difusión del cooperativismo, a la captación y evaluación de ideas de negocio, la colaboración con instituciones públicas dedicadas a la promoción de empresas, el apoyo técnico y jurídico y la posterior asistencia tutorizada durante un plazo tras la constitución de una determinada Cooperativa.



Eta ELKAR-LAN, S. COOP.en hasierako arrakastaren partaide egin nahi ditut hori ahalbidetu duten pertsona, erakunde eta herri-instituzio guztiak; eta norbait ahazteko arriskua neure gain hartuz –eta horrela gertatzen bada, barka diezadala ahaztutakoak, ez baita inola ere hori nire asmoa–, eskerrak eman nahi dizkiet lehenik Sozietate edo Elkarteko langile, zuzendari eta teknikariei, egin duten lan onagatik; baita ELKAR-LAN, S. COOP.en bazkide diren erakundeei ere: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari eta Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioari, hau sortzeak eskatzen zuen lan handia egin dutelako, baita ere proiektuari eman dioten era guztietako laguntzagatik ere.

Gure esker onik beroena, halaber, Euskal Administrazio guztietako ordezkari politiko eta teknikoei, ELKAR-LAN, S. COOP.i emandako laguntzagatik, eta bereziki Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapenerako Departamentuari, ongi hartu, arreta eskaini eta laguntza eman digutelako.

Eta, jakina, esker onik beroena lehenengo ekitaldi honetan diruz lagundu diguten euskal Kooperatiba guztiei (hauen zerrenda osoa Oroitidazki honen barruan agertzen da), berriro ere gauzatu dutelako lankidetzako kooperatiboaren printzipioa, printzipio hauxe izanik euskal kooperatibismoaren lorpenik handienetako askoren zutabe estrategikoa.

Bukatzeko, esan nahi nuke ilusioz eta itxaropenez begiratzen diogula etorkizunari, baina ez geure buruarekiko atsegin antzuagatik, baizik eta esku hartu duten erakunde guztiek konpromiso serioa hartu dutelako proiektuarekiko.

Agustín Mendiola Gorospe
Lehendakaria

Los positivos resultados de su actuación no se han dejado esperar y se recogen de forma detallada en esta Memoria 2003, que es la expresión del primer año en la andadura de ELKAR-LAN, S. COOP.

Y quiero hacer partícipes del éxito con que ha arrancado ELKAR-LAN, S. COOP. a todas aquellas personas, entidades e instituciones públicas que lo han hecho posible y, asumiendo el riesgo de olvidarme de alguna, que ruego me perdone si así sucede porque nada estaría más lejos de mi intención, quiero agradecer en primer lugar al conjunto de los trabajadores, Director y técnicos de la Sociedad, por el buen trabajo que han realizado; y a las entidades socias de ELKAR-LAN, S. COOP.: el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, la Confederación de Cooperativas de Euskadi y la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi por haber realizado el esfuerzo que ha requerido su creación, así como por los apoyos de todo tipo que han dispensado al proyecto.

Nuestro más sincero agradecimiento también a los representantes políticos y técnicos de todas las Administraciones Vascas que han apoyado a ELKAR-LAN, S. COOP. y muy especialmente al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia por la receptividad, atención y apoyo que nos han dispensado.

Y, cómo no, el más sentido agradecimiento a todas las Cooperativas vascas que nos han apoyado económicamente en este primer ejercicio, cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria, que una vez más han puesto en práctica el principio de intercooperación cooperativa, principio que es el pilar estratégico de gran parte de las realizaciones más notorias del Cooperativismo vasco.

Para concluir, quisiera expresar que miramos al futuro con ilusión y esperanza, pero no como producto de estériles autocomplacencias, sino por el serio compromiso que han depositado en el proyecto todas las instituciones implicadas en el mismo.

Agustín Mendiola Gorospe
Presidente





III. PRESTAKUNTZA ETA
ZABALKUNDEA

III. INFORMACIÓN Y
DIFUSIÓN



Kooperatiben sorrera bultzatzeko, gure bezero izan zitezkeen artean Kooperatiba bat zer den azaldu behar genuen, bere berezitasunak, abantailak edo desberdintasunak beste sozietate-egitura batzuen aldean, berariazko laguntzak, zerga- eta kontabilitate-arloan duten araudia, etab.

Helburu hori lortze aldera ondorengo ekintzak gauzatu dira:

1.- ELKAR-LAN, S. COOP. ETA BERE JARDUERAK AURKEZTEKO BANAKO BILERAK

Ondorengo erakunde hauetan egin ditugu bilerak:

- Enpresa Sustapenerako Zentroak (DEMA, AZARO FUNDAZIOA, SAIOLAN)
- Toki Garapenerako Agentziak eta Behargintzak
 - DONOSTIAKO UDALA
 - DEBEGESA (EIBAR)
 - FORLAN (MUSKIZ)
 - GOIEKI (ORDIZIA)
 - INGURALDE (BARAKALDO)
 - IRAURGI LANTZEN (AZKOITIA)
 - LAN EKINTZA-BILBAO, S.A.
 - LEA ARTIBAICO GARAPEN AGENTZIA (MARKINA-XEMEIN)
 - DURANGOKO MERINDADEKO MANKO MUNITATEA (DURANGO)
 - OARSOALDEA (OIARTZUN)
 - TOLOSALEA GARATZEN (TOLOSA)
 - UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA (ZARAUTZ)
 - BEHARGINTZAK LEKEITIO/ONDARROA
- Sindikatuak
 - ELA-STV
 - LAB
 - UGT
 - CCOO
- INEM

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zuzendari probintzialekin.

Para promocionar la creación de Cooperativas teníamos que dar a conocer, entre nuestros potenciales clientes lo que es una Cooperativa, sus peculiaridades, ventajas o diferencias sobre otras configuraciones societarias, las ayudas específicas, su regulación fiscal, contable, etc.

Para abordar dicho objetivo se han realizado las siguientes actuaciones:

1.- REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S. COOP. Y DE SUS ACTIVIDADES

Estas reuniones las hemos celebrado en las entidades siguientes:

- Centros de Promoción Empresarial: DEMA, AZARO FUNDAZIOA y SAIOLAN
- Agencias de Desarrollo Local y Behargintzak
 - AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
 - DEBEGESA (EIBAR)
 - FORLAN (MUSKIZ)
 - GOIEKI (ORDIZIA)
 - INGURALDE (BARAKALDO)
 - IRAURGI LANTZEN (AZKOITIA)
 - LAN EKINTZA-BILBAO, S.A.
 - LEA ARTIBAICO GARAPEN AGENTZIA (MARKINA-XEMEIN)
 - MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO (DURANGO)
 - OARSOALDEA (OIARTZUN)
 - TOLOSALEA GARATZEN (TOLOSA)
 - UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA (ZARAUTZ)
 - BEHARGINTZAK LEKEITIO/ONDARROA
- Sindicatos
 - ELA-STV
 - LAB
 - UGT
 - CCOO
- INEM

Con los Directores provinciales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.



■ Kontsulta eta Aholkularitza Enpresak

Arreta berezi eta pertsonalizatua eman zaie hauei, puntu honen 9. atalean agertzen den bezala.

■ Foru Aldundiak

Bilerak izan ditugu gure Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan enpresa-promozioaren arloan eskudun diren foru-diputuekin.

2.- ZIRKULARRAK BIDALTZEA EAE-KO ENPRESE-TARA KOOPERATIBA BIHURTZEKO DAUDEN LAGUNTZEN BERRI EMANEZ, ETA BISITAK ENPRESA INTERESATUETARA

Autonomia Erkidegoan 3 eta 50 lanpostu artean dituzten enpresa guztietara zirkularra bidali da ETE-Enpresa Txiki eta Ertainak Kooperatiba bihurtzeko dauden laguntzen berri emanez. Ondorioz, 23 enpresa bisitatu dira, eta beren jabeekin edo akzio-gehiengodunekin bilerak egin dira.

3.- TRIPTIKOAK ETA WEB ORRIA (www.elkarlan.coop)

Gure lana sendotzeko ezinbestekoak ziren euskarri fisiko batzuk -triptikoak eta diptikoak-, baita gure erabiltzaile izan zitezkeenei telematika bidezko sarbidea ematea ere web orriaren bidez. Ondorioz, gure web orria egin dugu (www.elkarlan.coop), eta denbora ari gatzaizkio eskaintzen, orri interesgarria izan dadin, etengabe eguneratua.

4.- JAKINARAZPENA AUTONOMIA ERKIDEGOKO NOTARIO GUZTIEI, KOOPERATIBEN ERAKETAN BEREN ESANETARA GAUZKATELA ESANEZ

Zirkular honen ondorioz, harremanak izan ditugu zenbait notariatatan.

■ Consultorías y Asesorías

Han sido objeto de una especial atención personalizada tal y como se refleja en el apartado 9 de este punto.

■ Diputaciones Forales

Hemos mantenido reuniones con los Diputados Forales competentes en el área de promoción empresarial de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma Vasca.

2.- DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS Y VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS

Remisión de una circular a todas las empresas de la Comunidad de entre 3 y 50 empleos informándoles sobre las ayudas existentes para la transformación de pymes en Cooperativas. Fruto de ellos se visitaron 23 empresas, reuniéndonos con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios.

3.- ELABORACIÓN DE TRÍPTICOS Y PÁGINA WEB (www.elkarlan.coop)

Para reforzar nuestras actuaciones eran indispensables unos soportes físicos -trípticos y dipticos- así como posibilitar a nuestros potenciales usuarios un acceso vía telemática a través de una página web. Así, hemos construido nuestra página web (www.elkarlan.coop), a la cual le estamos dedicando tiempo para que sea una página de interés y esté permanentemente actualizada.

4.- COMUNICACIÓN A TODOS LOS NOTARIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PONIÉNDONOS A SU DISPOSICIÓN PARA FACILITAR SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS

Fruto de dicha circular hemos mantenido posteriormente varios contactos con diferentes notarías.



5.- KOMUNIKABIDEETAN ELKARRIZKETAK ETA PARTE-HARTZEAK

ELKAR-LAN, S. COOP., Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioan 2003ko martxoan lehenengo aurkezpena egin zuenetik, hainbat komunikabidetan agertu da, baita ere aldizkarietan (TU-LANKIDE, KOOP) edo egunkarietan (El Correo Español, Gara, Deia, Expansión, etab.), Radio Vitorian eta telebista-albistegietan (ETB, TVE, Antena 3).

6.- ZENBAIT EKITALDITAN PARTE-HARTZEA

ELKAR-LAN, S. COOP. aurkeztu eta kooperatiba-eredua zenbait ekitalditan ezagutarazi da:

- EKGK-CSCERen XX. Urteurrenean, urriaren 17an
- ELEKF-FCTAERen Ohiko Batzar Nagusian, martxoaren 18an
- Eusko Jaurlaritzak antolaturiko Enplegu Ferian, azaroaren 13an
- Deustuko Unibertsitateko Kooperatiba Ikasketen Institutuan, irailaren 9an

7.- KONTSULTEI ERANTZUTEA

Aurtengo ekitaldian 367 kontsulta egin dizkigute. Zein lurraldetatik egin zaizkigun kontuan hartuta, hona hemen banakapena:

- 367 KONTSULTA
 - 55 Arabatik
 - 146 Bizkaitik
 - 155 Gipuzkoatik
 - 11 jatorri ezezagunekoak
- eta gaiaren arabera
 - Kooperatibei buruzko informazio orokorra
 - Zerga-gaiak
 - Estatutu Sozialak
 - Enpresak Kooperatiba eraldatu edo bihurtzea
 - Gizarte Segurantzza Kooperatibetan

5.- ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN

ELKAR-LAN, S. COOP. ha aparecido en diferentes medios de comunicación, desde su inicial presentación en la Asamblea General Ordinaria de la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi en marzo de 2003, así como en revistas como TU-LANKIDE, KOOP, y en otros medios como El Correo Español, Gara, Deia, Expansión, etc. y en radio Vitoria, y en informativos de las televisiones ETB, TVE y Antena 3.

6.- PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS

Presentando ELKAR-LAN, S. COOP. y difundiendo el modelo cooperativo en los siguientes eventos:

- XX Aniversario del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, el 17 de octubre
- Asamblea General Ordinaria de la Federación de Cooperativas, el 18 de marzo
- En la Feria de Empleo organizada por el Gobierno Vasco, el 13 de noviembre
- En el Instituto de Estudios Cooperativos de la Universidad de Deusto, el 9 de septiembre

7.- ATENCIÓN A CONSULTAS

Durante el presente ejercicio hemos atendido 367 consultas, siendo su desglose, por procedencia territorial el siguiente:

- 367 CONSULTAS ATENDIDAS
 - 55 procedentes de Araba
 - 146 procedentes de Bizkaia
 - 155 procedentes de Gipuzkoa
 - 11 de origen desconocido
- y por materias
 - Información general sobre Cooperativas.
 - Fiscalidad
 - Estatutos Sociales
 - Transformación de empresas en Cooperativas
 - Seguridad Social en las Cooperativas



8.- ZIRKULARRAK EGIN ETA BIDALTZEA

Honako hauek egin eta bidali ziren:

- Nekazaritzako eta elikadurarako produktuak sustatzeko laguntza-neurriak (2003-11-14)
- Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreak ikertu eta berritzeko laguntza-neurriak (2003-11-14)
- RETAn sartutako langileen lanbide-gertakizun edo kontingentzien babesa (2003-10-27)
- Prestakuntzarako laguntzak Arabako enpresetan (2003-10-1)
- OSALANen laguntzak eta euskara bultzatzekoak (2003-08-26)
- AFI Programa, Inbertsiorako Finantza Laguntzak industri sektorean (2003-06-20)
- Enpresak Kooperatiba bihurtzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntzak (2003-06-11)
- Kooperatibak eratzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntza garrantzitsuak (2003-06-03)
- 2/2003 Errege Lege Dekretua, apirilaren 25ekoa, erreforma ekonomikorako neurriena, eta 463/2003 Errege Dekretua, apirilaren 25ekoa, ezintasun iraunkorreko pentsioa igotzeari buruzkoa (2003-04-30)
- Jende ekintzaileari aholkularitza eta laguntza tekniko emateko programa – Gipuzkoako TXEKIN Programa (2003-03-31)
- LANERA Programa, 2003an enpleguari laguntzekoa, Bizkaiko Enplegu eta Prestakuntza Departamentuarena (2003-03-28)

8.- ELABORACIÓN Y REMISIÓN DE CIRCULARES

Se confeccionaron y circularizaron las siguientes:

- Medidas de apoyo a actuaciones de promoción de los productos agrarios y alimentarios (14-11-2003)
- Medidas de apoyo a la investigación e innovación del sector agrario, agroalimentario y pesquero de la Comunidad Autónoma del País Vasco (14-11-2003)
- Cobertura de las contingencias profesionales de los trabajadores incluidos en el RETA (27-10-2003)
- Ayudas a la formación en las empresas alavesas (1-10-2003)
- Ayudas de OSALAN y de apoyo al euskera (26-8-2003)
- Programa AFI de Ayudas Financieras a la Inversión en el sector industrial (20-6-2003)
- Ayudas del Gobierno Vasco para la transformación de empresas en Cooperativas (11-6-2003)
- Ayudas del Gobierno Vasco para la constitución de Cooperativas (3-6-2003)
- Real Decreto-Ley 2/2003, de 25 de abril, de medidas de reforma económica, y el Real Decreto 463/2003, de 25 de abril, sobre reconocimiento del incremento de la pensión de incapacidad permanente (30-4-2003)
- Programa de asesoramiento y asistencia técnica a personas emprendedoras - PROGRAMA TXEKIN, de Gipuzkoa (31-3-2003)
- Programa LANERA, de apoyo al empleo, del Departamento de Empleo y Formación de Bizkaia, para el año 2003 (28-3-2003)



9.- ZABALKUNDE- ETA SUSTAPEN-KANPAINA AHOLKULARITZA ETA KONTSULTA- ENPRESETAN ETA GESTORIAN

Arlo garrantzitsuak dira hauek, sustatzaileek beren enpresa-proiektuaren egituratze juridikoaz erabaki bat hartzeko orduan, iritzi kualifikatua eskatu eta hauek baitira alde batera edo bestera erabaki dezaketenak.

Horretarako, 123 aholkularitza- eta kontsulta-enpresa eta gestoriarekin jarri gara telefonoz harremanetan, eta 31 bilera izan ditugu beren bulegoetan.

Kanpainaren emaitza gisa, eta jarraipena izango du are biziagoa datorren ekitaldian, oso harreman errazak dituzte ELKAR-LAN, S. COOP.eko teknikariek aholkularitza-enpresekin, eta sektore horretan kooperatiba-ereduaren irudia hobetzea lortu nahi genuke, beraiek baitira enpresak sortzen dituzten ekintzaile gehienengana iristen direnak.

10.- LAN EKINTZA-BILBAO, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA ETA GAZTENPRESA FUNDAZIOAREKIKO HARREMANAK

Gure lehenengo ekitaldi honetan harremanak estutu nahi izan ditugu LAN EKINTZA-BILBAO, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA ETA GAZTENPRESA FUNDAZIOA erakundeekin, eta horien emaitza izan dira 2003an LAN EKINTZA-BILBAO eta SAIOLANekin egin ditugun hitzarmen partikularrak.

Beste bi erakundeekin, AZARO FUNDAZIOA eta GAZTENPRESA FUNDAZIOAREKIN, bilerak izan ditugu urtearen azken hilabeteetan, eta guztietan elkarrenganako sintonia ona izan dugunez, ziur aski bi fundazio hauekin ere izenpetuko ditugu lankidetzeta-hitzarmenak 2004an.

Hitzarmen hauei garrantzi handia ematen diegunez, beren edukiaren berri VII. kapituluaren eman-go dugu.

9.- CAMPAÑA DE DIFUSIÓN Y PROMOCIÓN A ASESORÍAS, CONSULTORÍAS Y GESTORÍAS

Conscientes de su importancia como prescriptores para los promotores que les piden su opinión cualificada, a la hora de tomar una decisión sobre la configuración jurídica de su proyecto empresarial.

A dicho efecto hemos contactado telefónicamente con 123 asesorías, consultorías y gestorías, y hemos mantenido, en sus respectivos despachos profesionales, 31 reuniones.

Fruto de esta Campaña, que tendrá su continuidad con una intensidad superior para el próximo ejercicio, son las fluidas relaciones de los técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP. con las consultorías, esperando que consigamos mejorar la imagen del modelo cooperativo entre dicho colectivo, ya que ellos son quienes acceden al núcleo mayoritario de emprendedores que constituyen empresas.

10.-RELACIONES CON LAN EKINTZA-BILBAO, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA Y FUNDACIÓN GAZTEMPRESA

Durante éste nuestro primer ejercicio hemos querido intensificar nuestras relaciones con las entidades LAN EKINTZA-BILBAO, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA Y FUNDACIÓN GAZTEMPRESA, y fruto de las mismas han sido los convenios particulares suscritos en el 2003, con LAN EKINTZA-BILBAO y SAIOLAN.

Con las otras dos entidades, AZARO FUNDAZIOA y FUNDACIÓN GAZTEMPRESA, hemos tenido reuniones en el último mes del año, y todas ellas con gran sintonía mutua, por lo que probablemente procederemos a suscribir también los respectivos convenios de colaboración en el próximo año 2004 con estas dos fundaciones.

Dada la importancia que otorgamos a estos convenios procedemos a describir su alcance en el capítulo VII.



IV. PRESTAKUNTZA

IV. FORMACIÓN



Kooperatiba bat sortu behar duten sustatzaile edo bezero izan daitezkeen guztiei behar duten oinarrizko prestakuntza eman die ELKAR-LAN, S. COOP.ek, Kooperatiba bat zer den jakin dezaten, horretaz gain prestakuntza espezifikoa ere eman dakieke Kooperatiban bertan jarraipeneko urtean. Honela, urtean zehar hitzaldiak eman ditugu kooperatiba-ereduaz ondorengo hauetan:

- Behargintza (Durango)
- Azaro Fundazioa (Markina)
- Oarsoaldea, S.A. (Oiartzungo Toki Garapen Agentzia): lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten taldeetako ikasleentzat saioak egin genituen, baita beren mikroenpresetako teknikarientzat ere.

Halaber, programak eta eskabideak egin dira prestakuntza kooperatiboa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan 2004ko ekitaldian.

ELKAR-LAN, S. COOP. ha facilitado a todos los promotores o potenciales clientes que vayan a constituir una Cooperativa, la formación básica necesaria que les posibilite conocer qué es una Cooperativa, sin perjuicio de realizar otra específica en la propia Cooperativa durante el año de seguimiento. Así durante este ejercicio hemos impartido charlas/ponencias sobre el modelo cooperativo en:

- Behargintza de Durango
- Fundación Azaro (Markina)
- Oarsoaldea, S.A. (Agencia de Desarrollo Local de Oiartzun) para los cuales impartimos unas sesiones para sus alumnos, provenientes de colectivos de difícil inserción, así como a sus propios técnicos de microempresas

Asimismo, se han elaborado programas para impartir formación cooperativa en los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma para el próximo ejercicio 2004.



V. KOOPERATIBA-
AHOLKULARITZA ETA
ERAKETA

V. ASESORAMIENTO Y
CONSTITUCIÓN DE
COOPERATIVAS



Beren Kooperatiba gurekin eratu duten sustaizaille guztiek aholkularitza izan dute ad hoc, beren neurrira, proiektuaren tipologiaren eta proiektaturiko Kooperatiba-motaren arabera, eta horretarako beraien esku jarri dira ELKAR-LAN, S. COOP.en giza baliabide eta baliabide tekniko guztiak.

Aholkularitza, nahiz eta desberdina izan bere hartzailleentzako arabera, ondorengo atal hauetako batean sartu da:

- a) Aholkularitza juridikoa: legeria kooperatiboari buruzkoa da funtsean.
- b) Aholkularitza ekonomikoa: Gai ekonomikoak eta oinarritzko kudeaketa-tresnak sartzen dira hemen.
- c) Laguntzei buruzko aholkularitza: oraingoz daudenen berri ematen diegu eta gero promulgatzen diren berriak jakinarazten dizkiegu, beraienez interesgarriak badira.
- d) Finantza-aholkularitza eta kokalekuari buruzkoa: finantza-erakundeekin (ICO, OINARRI, S.G.R.) egindako hitzarmenetatik sortutako finantzaketa-bideei buruzko informazio guztia, baita industrialdeetan kokatzeko aukerak, enpresa-inkubadoreak, etab.
- e) Teknika, informatika, marketin eta abarri buruzko aholkularitza.

Aholkularitza-fasearen ondorioz, edota hau gabe, sustaizaillei Kooperatiba bihurtzen lagundu diegu, horretarako beharrezko guztia eskura emanez; honela zehaztuko genuke:

1. Izen berdinek ezaren ziurtagiri-eskaerak bideratzea.
2. Kooperatiba-motaren arabera Estatutu Sozialen eredu bat beraien esku jartzea, oinarritzko kontzeptuak eta beren edukia- ren nondik norakoak azaltzeko bilera egin ondoren.

Todos los promotores que han constituido con nosotros su Cooperativa han recibido un asesoramiento ad hoc, a medida, según la tipología de su proyecto y clase de Cooperativa proyectada, a cuyo efecto se han puesto a su disposición todos los recursos humanos y técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP.

El tipo de asesoramiento, aún siendo diferentes en función de las necesidades de los clientes receptores del mismo, ha encajado en alguno de los que a continuación se describen:

- a) Asesoramiento jurídico: versa sustancialmente sobre legislación cooperativa.
- b) Asesoramiento económico: abarca cuestiones de tipo económico y de herramientas de gestión básicas.
- c) Asesoramiento en ayudas: informamos de las existentes y posteriormente les comunicamos las nuevas que se promulguen y que sean de su interés.
- d) Asesoramiento financiero y de ubicación: toda la información referida a vías de financiación provenientes de convenios con entidades financieras, ICO, OINARRI, S.G.R., así como programas de ubicación posibles en industrialdeas, incubadoras de empresas, etc.
- e) Asesoramiento técnico, informático, marketing, etc.

Como consecuencia de la fase de asesoramiento o, sin que medie la misma, hemos ayudado a los promotores a constituirse en Cooperativas, facilitándoles para ello todo lo necesario, y que podemos concretarlo de la forma siguiente:

1. Tramitación de solicitudes de certificaciones sobre denominaciones no coincidentes.
2. Poner a su disposición un modelo de Estatutos Sociales de la clase de Cooperativa de que se trate, previa reunión explicativa de los conceptos básicos y del alcance de su contenido.



3. Estatutu Sozialak neurrira egitea, sustatzai-leei egokiak iruditu zaizkien aldaketak egin.
 4. Notarioari Estatutu Sozialak eta beharrezko dokumentazioa bidaltzea (ordain-agiriak, ondasun higigarrien tasazioak, etab.). Eta hala dagokionean, notarioarengana joateko laguntza.
 5. Euskadiko Kooperatiben Erregistroan jarraipena egitea Kooperatibaren inskripzioa egiteko.
 6. CIF-IFK, IAEn alta, irekitzeko baimena, enpresari eta bazkideei Gizarte Segurantzako Diruzaintzan alta, etab. lortzeko aholkularitza.
3. Confección a medida de Estatutos Sociales, introduciendo las modificaciones que los promotores hayan considerado adecuadas.
 4. Remisión al notario de Estatutos Sociales y documentación necesaria (justificantes desembolsos, tasaciones bienes muebles, etc.). Acompañamiento en su caso a notario.
 5. Seguimiento ante el Registro de Cooperativas de Euskadi para su inscripción.
 6. Asesoramiento para que consigan el CIF, alta IAE, licencia de apertura, alta empresa en Tesorería Seguridad Social y de sus socios, etc.





VI. TUTORIZAZIOA /
JARRAIPENA

VI. TUTORIZACIÓN /
SEGUIMIENTO



Kooperatiba eratu ondoren edota merkataritzako erakunde bat Kooperatiba bihurtu ondoren, ELKAR-LAN, S. COOP.ek jarraipena egiten die urtebetez. Eta 2003an hasi da ekitaldi honetan ELKAR-LAN, S. COOP.ekin lotura izan duten 38 Kooperatiben jarraipena egiten; horien zerrenda Oroitidazki honen VIIIren atalean agertzen da.

Denboraldi horretan aholkularitza eta laguntza ematen zaie abiatutako enpresa-proiektuaren iraupena ziurtatzeko; Kooperatiba bakoitzarekin bere jarraipen-programa ezartzen dugu, gure egitura beraien zerbitzura jarritz, Kooperatibaren eta ELKAR-LAN, S. COOP.ek izendatutako teknikariaren artean erabakitako plangintzaren arabera.

Zerbitzu honek intentsitate eta orientabide desberdina du Kooperatiba bakoitzarentzat, bere tamainaren, sustatzaileen prestakuntzaren eta abarren arabera.

Denboraldi horretan beraien esku jartzen diren gutxieneko zerbitzuak hauek dira:

1. ELKAR-LAN, S. COOP.ek teknikari bat izendatzea laguntza emateko.
2. Kontuen egoera-orriak aztertu eta, erabakitzen den aldizkakotasunez —baina sekula ez lau hilabetekoa baino handiagoaz—, txosten bat egitea.
3. Kontseilu Errektoreetara joatea, baina ez 4 bilkura baino gehiagotara.
4. Ohiko Batzar Nagusira joatea eta, hala badagokio, Batzar Nagusi Berezi batera.
5. "On line" arreta sozietate, ekonomia, zerga, kontabilitate eta abarrez (telefono, fax, e-mail edo bilera pertsonalen bidez) egindako kontsultetarako.
6. Kooperatibentzat interesgarriak izan daitezkeen zirkularrak bidaltzea, kontuan izanda Euskadiko Kooperatiben Federazio bakoitzak bidalitakoak, horiekin zuzeneko harremanean eta erabat koordinaturik gaude eta.
7. Sarbide mugatua ELKAR-LAN, S.COOP.en web orriko zirkularretara (www.elkarlan.coop).

Una vez constituida la Cooperativa o transformada una entidad mercantil en Cooperativa, ELKAR-LAN, S. COOP. les realiza un seguimiento durante un año, habiéndose iniciado durante el ejercicio 2003 el seguimiento de las 38 Cooperativas vinculadas a ELKAR-LAN, S. COOP. en este ejercicio y cuya relación ya se recoge en el apartado VIII de esta Memoria.

Durante este periodo se les asesora y apoya a mantener la continuidad de su proyecto empresarial puesto ya en marcha, estableciéndose con cada Cooperativa un programa de seguimiento individualizado y poniendo a su disposición nuestra estructura, de conformidad con la planificación que se haya acordado entre la Cooperativa y el técnico asignado por ELKAR-LAN, S. COOP.

Este servicio es de distinta intensidad y diferente orientación para cada Cooperativa según su tamaño, formación de los promotores, etc.

Los servicios mínimos que se ponen a su disposición durante dicho periodo son:

1. Asignación de un técnico de apoyo de ELKAR-LAN, S. COOP.
2. Examen de sus estados contables y emisión de un informe con una periodicidad a determinar, pero nunca superior al cuatrimestre.
3. Asistencia a Consejos Rectores, en un número no superior a 4 sesiones.
4. Asistencia a la Asamblea General Ordinaria y, en su caso, a una Extraordinaria.
5. Atención on line a consultas (telefónicas, fax, e-mail o mediante reuniones personales) de tipo societario, económico, fiscal, contable, etc.
6. Remisión de circulares de interés para las Cooperativas, teniendo en cuenta las que haya enviado cada Federación de Cooperativas de Euskadi con las que estamos en contacto directo y plenamente coordinados.
7. Acceso restringido a las circulares de la página web de ELKAR-LAN, S.COOP. (www.elkarlan.coop).



VII. LANKIDETZA-
HITZARMENAK

VII. CONVENIOS DE
COLABORACIÓN



Bi lankidetzeta-hitzarmen egin ditugu, garrantzi eta eduki desberdinekoak, LAN EKINTZA-BILBAO eta CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE MONDRAGÓN, S.A., (SAIOLAN) delakoekin, horien helburu eta eduki nagusiak ondoren azalduko direlarik.

1.- LANKIDETZA-HITZARMENA "LAN EKINTZA-BILBAO" REKIN

Azaroaren 10ean ELKAR-LAN, S. COOP.ek lankidetzeta-hitzarmena izenpetu zuen "Lan Ekintza-Bilbao" rekin, hau Bilboko Udalaren Enplegu eta Ekonomi Sustapenerako Arloa adskribitutako Udal Sozietatea izanik; bere helburua kooperatiba-eredua zabaltzea sustatzailerik edo enpresentzat antolatzen diren prestakuntza-ekintza eta jardunaldi edo ekitaldietan, betiere edukiek edo programek kooperatibismoari buruzko aipamenik baldin badute.

Lankidetzeta-programak helburu orokor hauek ditu:

- ELKAR-LAN, S. COOP.ek kooperatibismoa zabaltzea Lan Ekintza-Bilbao-k sustatzaile edo enpresentzat antolatzen dituen ekintzetan
- Lan Ekintza-Bilbao-n egiten den prestakuntza kooperatiboa, ELKAR-LAN, S.COOP.eko langileek egingo dute, batez ere
